

BERRIGARA

59. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara


1992, apirilak 3



Usoak
Apaingarri ala zikingarri?



EXPOra
joateko
dirulaguntzak



Felix Beitia
Herri Kiroletan
buru belarri




Pala
txapelketan
14 bikote

Zure jaunartze argazkietarako

KIÑU

Barrenkale 35 Tfnoa: 76 58 05





Barrenkale, 3 • BERGARA • telf.: 943-765919

**Pintxoak, eguneroko menua eta
karta bereziak ditugu
Betiko eta oraingo sukaldaritza**



ARGAZKI

Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

Txaro Garcia

Aurreko GALDE DEBALDEko erantzun zuzena hau zen: Urak irtetzerakoan ateratzen duen zaratagatik datorkio Pol-Pol-ari bere izena.

Txaro Garciak irabazi du Argazkiko SARIA.

ZORIONAK irabazleari!!

**Eta besteok animatu, eta erantzuna eman
aste honetako galderari!**

Urcelay
HARATEGIA

**GURE BASERRIAN
HAZITAKO TXAHALAK**

**Etxean egindako txorizo,
saltxitxa, odoloste, e.a.k**

Ibargarai 16, Tfnoa: 76 00 45 / 76 37 77



Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 57

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jaurlaritza

Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal eta Edurne Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezibar, J. M. Elxpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkoroberezibar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kifitu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



La piel prestada antzertuko du Geroa antzerki taldeak igandean Zabalotegipeko lokalean. Xabi Puertaren lan honetan, Zutoia Alarcia, Rosa Martinez eta Alfonso Torregrosa aktoreek hartzen dute parte eta kritika onarekin datozkigu Bergarara. Antzerkiar gozatzeko aukera. Igandean, 7etan.

LARUNBATA 4

• Kontzertua:

- *Child Abuse* eta *Fucking what* gaueko 11etan Gaztetxean.

• Zerbeza jaia:

- *Malaña* taldearekin, Tartufon gaueko 11etan.

• Pelota partiduak:

- Soroa II.-Santi/Etxaniz-Salbidea, Salaberria-Maiz II/Bengoetxea IV.-Retegi IV. eta Herran-Astarloa/Gabilondo-Garaita, Pelotalekuan 16.30etan.

IGANDEA 5

• Futbola:

- *Bergara-Añorga* (jubenilak), Ipintzan, 16.45etan.

• Pala txapelketa:

- Goizeko 9etatik ordu bietara Osintxuko Pelotalekuan.

• Futbola:

- *Bergara-Usurbil*, Agorrosinen 16.45etan.

• Kontzertua:

- *The All Nighters*, Gaztetxean arratsaldeko 8etan.

ASTEARTEA 7

• Hitzaldia:

- *Bergararren historia*. Arturo R. Ortega, Kultur Etxean, 7etan.

OSTEGUNA 9

• Hitzaldia:

- *Espiritu ilustratuen agerkariak Bergaran*. Koldo Larrañaga, Kultur Etxean, 7etan.

FARMAZIAK



- 4 Guallar
- 5 Guallar
- 6 Estella
- 7 Mozos
- 8 Camacho
- 9 Puy
- 10 Guallar

ZINEA



JFK

- OSTIRALA: 22.30etan.
- LARUNBATA: 17.00, 19.30 eta 22.30etan.
- IGANDEA: 17.00, 19.30 eta 22.15etan.
- ASTELEHENA: 19.30.
- ASTEARTEA: 19.30.

El chip prodigioso

- IGANDEA: 11.30etan.

Alas de mariposa

- OSTEGUNA: 19.30.

OGIA



Ogizun



ETXEPARE - BILINTX LIBUBUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA



Bergarako Senideak taldeari erantzuna

92-III-13an "Bergarako Senideak" sinatuta argitaratu zen idatziari buruz, bertan esaten den bezala egia da Salto del Negroko preso baten senide batek sarrera eman ziola Udaletxean mozio bati eta alkatetzan bisitatu ninduela mozia aurkeztuaz eta aste hartan bertan Osoko Bilkura bat konbokatzea beharrezkoa zela esanez. Nire erantzuna izan zen horretarako ahal zen guztia egingo nuela eta horrela konbokatu nuen plenoa.

Egia da, halaber Osoko Bilkuran hitzegiteko zuen interesa azaldu zidala, baina nik erantzun nion gauza bakarra izan zen Osoko Bilkurak gai zerrrenda bat zuela, besterik ez. Beraz ez da egia, esan den bezala, Osoko Bilkuran hitza izango zuela agindu nionik. Eta hau da pertsona konkretu batekin gai honi buruz izan dudako kontaktu bakarra.

Era berean esan nahi dut aurkakoa demostratzen ez den bitartean nere "euskaldun hitza" Notario baten aktaren adinakoa dela, beraz nire hitza euskaldun baten hitza da.

Victoriano Gallastegi

Iritzi publikoari

Asteazkenean, apirilaren 1ean ez zen klaserik eman.

Ekintza honen helburua, gure konbenioaren negoziazioa lortzea izango litzateke.

Orain arte, Administrazioarekin egindako bileretan diru arazoaren gaiari baino ez zaio erantzunik eman.

Eta ikutu gabe geratzen dira, heziketa publikoarentzat oinarrizko eta garrantzitsu diren hainbat gai, hala nola:

- Planifikazioaren hobekuntza, gela bakoitzeko ikasle kopurura, irakasgai berrietarako irakasle espezializatuak, etab.

- Gure prestakuntzarako errekurtsio gehitzea; erreziklaia eta euskalduntzea.

- Irakaslegoaren iraunkortasuna.


- Konbenioako lan-baldintzak.

Gai guzti hauei erantzuna emateko, premia larrikoa ikusten dugu "Euskaol Eskola Publikoaren Legea" lehenbaiter lehenera ateratzea.

Horrela bada, espero dugu, bai Administrazioak bai politikoak gai izango direla, gure arazoei, "Euskal

Eskola Publikoa" ren arazoei, konponbide azkar eta egokia emateko.

Bergarako B.I.ko Klaustroa



Tiiira ba!



Josu Okina



□ Mendi irteera

Pol-Pol Mendizale Taldeak eta *Gorla Alpino Taldeak* datorren iganderako, hilak 12, Elgeta-Urkulu mendi irteera antolatu dute. Bi mendi taldeek herrian diren mendizale guztiak gonbidatzen dituzte eskurtsio honetan parte har dezaten. Irteera goizeko 7 t'erdietan izango da Plazatik eta izena ematea Pol-Poleko tabernan egin dezakezue. Eskurtsioaren prezioa 800 pta.koa da.

□ Erakusketa

Jesus Mari Garitano eta *Mikel Araiztegi* margolari bergararren lanak ikusgai izango dira Kultur Etxean apirilaren 3tik 14era bitartean. 25 margotan Bergarako eta beste hainbat herritako lekuak azaltzen dizkigute.

Erramu Zapatuko ferian nekazariak protagonista

Erramu Zapatuko Feria datorren larunbatean, hilak 11, ospatuko da eta ez apirilaren 4ean, akats bategatik aurreko astean jarri genuen bezala.

Feria honek azken urteetan galdutako indarra berreskuratu nahi luke Udalak aurtengoan. Milioi bat berrehun mila pta. inguruko aurrekontuarekin, programa zabalak prestatu da zapatu-rako.

Feria goizeko 9.30etan zabalduko da Ibargarai, Fraiskozuri eta Simon Arrieta plazan. Arratsaldeko 1.30etan Gorrotxategi eta Egileor bertsolarien txanda izango da eta 4.30etan pelota partidua Frontoian. Ondoren, herri kirolaren jaialdia iragarrita dago Aranzadi ikastolako patioan 5.30etan eta, azkenik, ferriari amaiera emango



dion bertsolari jaialdia ospatuko da pelotalekuan, Lopategi, Peñagari-kano, Egaña, Eguzkitze, Lizaso eta Sarasuaren partaidetzarekin.

Ganadua aurten

Iazko ferian izurrite baten ondorioz falta izan zen ganadua ez du

hutsik egingo aurtengoan. Horrez gain, oiloak, erleak, taloak, otarragintza aintzinako nekazal erremintak etab. luze bat izango dira ikusgai.

Joseba Aizpurua Udala Nekazal Peritoak adierazi digun bezala, "feria goraka dihoa eta Udalak apostua egin du oraindik indar gehiago har dezan".

Umeen bedeinkazioak

Joan den igandean Elizamendiko Anunziazio Ama Birjinaren omenezko jaia ospatu zen Angiozarreko auzo horretan. Guztira, 150 lagun inguru bildu ziren eguadiako mezan eta, ohiturari jarraituz, bertako Sabin Azkue apaizak umeen bedeinkatzeari ekin zion. Anunziazio Ama-Birjina beti lotu izan da umeekin eta haurdun diren emakumeekin; jaioberritik hasi eta 14 urterarteko gaztetxoek ere aprobetxatu nahi izan zuten aukera hau bedeinkapena jasotzeko. Oraingoan, ohizko salda eta txorizoa hurrengo baterako utzi behar izan zen Garizuma garaian gaude eta.



ESPOLON



School of English

BBB, UBI, Hizkuntza Eskola Ofiziala eta Cambridgeko Unibertsitateko azterketetarako presentatzeko talde bereziak.

PET azterketetarako matrikulatzeko ikastegi ofiziala.

Informazio gehiago goizeko 10etatik 12.30etara eta arratsaldeko 3retatik 4retara 76 03 53 tfnora deituz.


Ibargarai 31, Tfnoa: 76 03 53 BERGARA

□ **Bi hitzaldi**

Gure herriaren ezagupena hitzaldi-sortari amaiera emanez, datorren asteko asteartean, hilak 7, Bergararren historia hitzaldia emango du (gaztelerez) **Arturo R. Ortegak** arratsaldeko 7etan Kultur Etxean. Ostegunean, berriz, **Koldo Larrañagak** (euskaraz) *Espiritu ilustratuen agerkariak Bergaran* aztertuko ditu arratsaldeko 7etan Kultur Etxeko erakusketa aretoan.

□ **Eguzki irteera**

Eguzki talde ekologistak hainbat proiekturen eraginez Pirineotan hondatutako hainbat toki ikustera joateko irteera antolatu du iganderako, hilak 5. Irteera goizeko 7etan izango da Frontoitik eta joan nahi izanez gero larunbatera arte, Pol-Pol, Arrano edo Gaztetxean eman dezakezue izena.



Udalak bi lokal erosi

Astelehenean egindako Plenoan, Bergarako Udalak Zabalotegiko baxuetan LAB sindikatua-ren lokala eta Bidekurutzetako 27. zenbakikoa erosteko erabakia hartu zuen. Victoriano Gallas-tegi alkateak azaldu zue-nez, "Zabalotegikoa udal zerbitzuetarako erabiliko litzateke, IMIko bulegoa bertara pasatzeko asmoa baitago". HB kontra azaldu zen, "udalaren patrimonioa haunditzea ondo dagoela baina ez besteen kalterako denean". Lokal horren truke 3 milioi t'erdi pta. ordaindu be-

harko ditu Udalak.

Bestalde, 30 milioi pta. inguru ordainduta Udal Euskaltegirako erosi berri den lokalak araudi guztia betetzen duela adierazi zuen alkateak. HBk, bere alde-tik, zalantzan jarri zuen adierazpen hori, tekniko-en txostenak egiten ari zirenik ere ez zekitelako.

HBk eta Eak salatu egin zuten Plenotan jasaten duten diskriminazioa. Victorianok, gai guztiak komisiotan aztertzen direla eta jakinean ez egotea beraien arazoa dela erantzun zien.

□ **Karanbolak**

Karanbolen Billar Txapelketa antolatu du LAMek apirilak 11 eta 12rako. Txapelketa Oilagorra tabernan jokatuko da eta izena emateko epea apirilaren 4ean bukatuko da. Inskripzioak 1.000 pta. balio du eta sailkatutako lehenengo hirurek 15.000, 10.000 eta 5.000 pta.ko sariak jasoko dituzte.

□ **Kirolak ikasi**

Deba Garaiko udal kirol zerbitzuek antolaturik, *igeriketa monitore* (maiatzak 8tik ekainaren 14era bitartean), *badminton monitore* (maiatzak 16 eta 17) eta *kirol urpekariko ikastaroak* (maiatzak 11tik 31ra) emango dira Oñati, Arrasate eta Bergaran. Argibide gehiago jaso nahi baduzue Bergarako Udal Kirol Zerbitzuko bulegotik pasa zaitezket 8etatik arratsaldeko 3rak arte.

P. MANSO
Optika

OPTIKOA, OPTOMETRISTA

Irizar Ibilbidea 2, Tfnoa; 76 27 86

TOKI-EDER
Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

GOIERRI

Autogidarien eskola

Fraiskozuri Enparantza 5


Tfnoa: 76 41 50

BERGARA

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57



EXPOrako laguntzak

Diputazioak eta Bergarako Udalak dirulaguntzak eskeiniko dituzte Sevillako EXPOa ikustera joan nahi duten 14 urtetik 25era bitarteko gazteentzat. Diputazioak lau eguneko 3 bidaia iragarri ditu maiatzerako; 7tik 10era lehena, 11tik 14era bigarrena eta, azkenik, maiatzaren 15etik 18ra hirugarrena.

Bidaia hauen prezioa 23.500 pta.koa da. Diputazioak 3.500 pta.ko dirulaguntza ematen du eta Bergarako Udalak beste 3.500 pta.kin kolaboratu nahi izan du.

Bidaia, joan-etorria, literadun trenetan egingo litzateke, tren geltoki bat bereziki lo egiteko prestatu delarik Sevillan bertan. Horrez gain, bidaiaren barne sartzen da aseguru, ostatuko osagarriak (dutxa, kontsigna eta segurtasuna), monitorea eta erakusketarako sarrera. Laguntza hauetan interesaturik zaudetenok lehen bait lehen jo beharko duzue Kultura Zerbitzura.

Jubilatuek ere laguntzak jaso ditzakete beste fetxatan antolatutako bidaietarako.

Txinpartak

✓ **Euskadiko Xake Txapelketaren** aurkezpena egingo da datorren ostiralean, hilak 10, arratsaldeko 7.30etan Kultur Etxean.

✓ **Eguzkik** Itoizko urtegiaren inguruan antolaturiko erakusketa ikusi ahal izango duzue aste-bukaera osoan Gaztetxean.

✓ **Jon Lazkanok** eskalada ikastaroa emango du Labegarietako rokodromoan datorren astelehenean, hilak 6, apirilaren 11ra bitartean.


✓ **Geroa** antzerki-taldeak *La piel prestada* antzezlan eskeiniko du igandean, hilak 5, arratsaldeko 7etan Zabalotegipeko aretoan.

✓ **Victoriano Gallastegi** eta **Javier Cendoya** izango dira Kutzako Asanbladarako udal kontseilari orokorrak.

✓ **Herri Batasuna**ri leporatu zizkion Victoriano Gallastegi alkateak martxoaren 6ko Pleno amaieran izandako istiluak.

✓ **Degabel** Deba Garaiko Abelazle Elkartek datorren igandean, hilak 5, eguadiako 12etan Antzuolako Guraso Elkartean Aretoan egingo den ohizko bilkura orokorrerako deialdia egin du.

✓ **Santi Arrieta** artista bergararraren eskultura eta zeramika erakusketa ikusgai izango da Eibarko Lankide Aurrezkiko aretoan apirilaren 3tik 19ra bitartean.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94 - 76 12 65
BERGARA

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

ETXAGI

Jatetxea

Afariak - Bataioak

Jaunartzeak

Eguneko menua

Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12



Ozaetako San Martin

XV garren gizardian Ozaetako jauregia, ahaide nagusietakua, ez zegoen gaurkoaren toki berean, zubiaren beste aldera baizik. Goratxoago, abizen berdineko ermita, Ozaetako San Martinena. Hau ez zen Toursekoa, Angiozarren dagoena bezalakoa; hau San Martin Aita Santuarena zen. Ermita, bere zabalari zegokiona baino luzeagoa,

agian denbora zaharretan estutu egin zen, zaintzaileari etxea egiteko edo. Koruan zurezko sareak euskal artearen traza zeukan.

San Martinen irudia

Utziko al didazue nere buruari dagokidan zertxobait esaten? Orain 22 urte inguru zan ni ermita honetan egokitu

nintzen batean. San Martinen irudiari begira nengoela, bere aurpegiak zeukan giza itxurak zirrara eragin zidan. Eta berehala bururatu zitzaidan ia Bergarako beste ermitetan zer topatu zitekeen. Horrela hasi nintzen ikerketa bat egiten.

San Martinen irudia ederra zen, ia gizakiaren luzekua, ile beltza eta kizkurra leporaino erortzen zitzaion, agian gehiegi margotuta zegoen. Bere ondoren San Blasen irudia garai berdinekoa, XV garren bukaerakoa edo, eta itxuraz esku

berdinekoa.

San Antolin

Gure eskumatara San Antolinena, egokia, barrokoa, hau ere gaizki margotua; santu honen ermita, inguruan, Eginu aldera edo bere ondoan egon zen eta, galdutakotan, bere irudia San Martinen ermitara jasoko zuten, ohitura zen bezala. Gaur, Ozaetako San Martinen ermita etxebizitza bihurtuta dago.

Imanol Sorondo



Ozaetako San Martineko ermita gaur egun etxebizitza bihurtuta dago.

LONBIDE

OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

KIZKUR



Heapaindegia Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

AFA - BI

Manufakturak, S. L.

P.V.C. Arotzgintza eta aluminioa

Veka Sistema (Alemaniarra)

San Lorentzo z/g Tfnoa: 76 50 92 - 76 21 59 BERGARA



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

Felix Beitia: "Jaiak disfrutatzeneko aukerarik ez dut sekula izan"

Urteak daramatza saltsa askotan sartuta. Bergarako Jai Batzordean 23 urte eman ditu dagoeneko, Herri Kirolen munduan, berriz, 12 bat. Herri Kiroletako Nazioarteko epailea izateaz gain Gipuzkoako Federazioko Presidentea dugu eta Euskadiko Federazioko Presidente ordea. Eibarko Mandiola baserrian bizi den arren, Bergaran pasatzen ditu ordurik gehienak. Felix Beitia, 39 urteko bergarra.



- Jai Batzordea, Herri Kirolak..., saltsa haundiegia ez al da?

- Horrela da bai, baina norberak bere burua gustoren non aurkitzen duen, han jarduten du. Batzuei lagunartean ibiltzea gustatzen zaie, beste batzuei kalean txikiteoan aritzea, politikan buru-belarri sartzen direnak badira...; nik antolaketa lanetan urte asko daramatza eta gustora asko nabil..., nazka eginda bukatu bitartean horretan jarraituko dut.

- Ez al zarete betikoak lan horietan zabilzatenak?

- Bai, Jai Batzordean, esaterako, 16 urte nituenean sartu nintzen eta gaur egun

hiru lagun gabilta jo eta ke herriko jaiak eta beste zenbait ekitaldi antolatzen. Horrek ez du esan nahi beste askoren laguntza izaten ez dugunik. Dena dela sarri askotan etorri izan da jende ugari ideiak ematera, baina jaiak etortzen direnean lana egiteko gogorik ez du inork edukitzen, betiko lau katuak ibiltzen gara hemen. Jaiak kuadrilarekin disfrutatzeneko aukerarik ez dut sekula santan izan.

- Erramu Zapatua datorren astean ospatzen da Bergaran eta azken urteetan izandako beherakadaren ondoren feria berriz ere bultzatzeko asmotan zabilzate...

- Ume nintzala Erramu Za-

patu egunean Bergarara jende pilo eta etortzen zen, nekazariak, txarlatanak..., ganadu mailan oso feria garrantzitsua zen. Azken urteetan, osterara, arazo ugari izan dira tartean eta maila zertxobait jeitsi egin da. Tratanteek gero eta animala gutxiago eramaten dituzte ferietara, perineumonia gaitza zela eta ez zela ere problemak egon ziren joan zen urtean... Aurten, berriz ere feria bultzatzeko ahaleginak egingo ditugu.

Bestalde azken bost urteetan ez da idi probarik antolatu eta asmoa da datorren urterako, Azoka Pláza berriko lanak bukatu eta probalekua eraiki ondoren, berriz ere probak antolatzeari ekitea, ikusi beharko....

- Herri Kiroletako Nazioarteko epaile zaitugu. Nola bururatu zitzazun lan horretan ekitea?

- Bila etorri ziren. Herriko jaien antolaketa nabilenez neregana etorri ziren eta baiezkoa eman nien, 12 urte badira honezkero. Gero, orain dela zortzi bat urte, Gipuzkoako Federazioko Zuzendaritza Batzordean sartu nintzen eta lasterrera, Lehendakari izendatu ninduten.

- Orain dela aste batzuk auzi bat izan du Federazioak 25 kilotako harria jaso nahi zuen bost urteko haur batekin eta bere gurasoekin. Zergatik ez zenioten plaza-razten utzi?

- Komunikabideen eraginagatik gaia gehiegi nahaspilatu da. Mutikoaren gurasoek Aiako Udalera jo zuten jaialdia antolatu nahi zutela eta, laguntza eske. Udaletik Federaziora deitu zuten marka erregistratzeko posibilitaterik bazegoen galdezka eta Federazioak ezezkoa eman zuen, indarrean dagoen araudiak adin horrekin harrijasotzen aritzea onartzen ez duelako. Geroztik sortu den saltsan Federazioak ez du zerrikusirik izan. Nere ustez amaren burugogorkeriaren ondorioa izan da sortu den eztabaida guztia, eta ziur nago, nahiz eta Federazioak marka ez homologatu, uda partean, herriko jaien etorrerarekin, mutiko hori plaza-raztu egingo dela. Haurraren osasunerako kaltegarria izan arren, hogeitabost kilotako harria jaso egingo du.

ONENA
TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA



LAKET

Gizon Emakume
Barrenkale 35 Irala 2
BERGARA

Zirinak fatxadak hondatzen dituenean...

Usoak. Mundu guztiko hiri ederrenetako enparantza, kale eta jauregien apalngarri. Pakezaletasunaren adierazgarri. Venezia, Zaragoza, Erroma..., beren eraikuntza bikainengatik ezagunak izateaz gain, plaza nagusietara hurbiltzen diren uso taldeengatik ere oso famatuak dira. Kontuak-kontu usoek kalte handiak ere eragiten dituzte herri eta hirietako etxe eta eraikuntzetan: uso zirinak eraginda harmarri, balkoi, eta fatxada ugari zikin-zikin eginda agertzen zaizkigu. Horrela bada, usoak uxatzeko produktu kimikoak erabiltzen dituztenak gero eta gehiago dira; urrunera joan barik, herrian adibide ugari ditugu. Erreportai honetan, usoek sortzen dituzten kalteei buruz eta hauek uxatzeko Bergaran erabili ohi diren produktuei buruz jardungo dugu.



Asko dira herrian, usoek eragiten dituzten kalteei erantzuna eman nahian neurriak hartzera beharturik aurkitu izan direnak. Santa Marinako elizpean, esaterako, usoak uxatzeko produktu kimikoak erabili dituzte orain dela gutxi: "hileta elizkizunetatik eta meza nagusietatik irtetzerakoan usoek jendearen gainera zirina egiten zuten eta askori trajea edota berokia hondatu egiten zioten. Horregatik usoak elizpetik uxatzea erabaki genuen; udaletxera jo genuen eta produktu kimiko bat botako zutela adierazi zigu-

ten. Horretan ibili dira hiru bat aste. Lana Udalaren kontura joan da eta produktuak balio zituen 500.000 pezetak, parrokiak ordaindu ditu", esan digu Xabier Zubizarreta Santa Marinako parrokoa.

Silikona usoak uxatzeko

Santa Marinan MASA CP deituriko silikona antzeko produktu kimikoa erabili dute usoak uxatzeko. Udaletxeko Obra eta Zerbitzuetako arduraduna den Joxe Angel Ugaldek banatzen du produktua. Alemaniatik inportatuta, Estatu osoan Bergaran erabiltzen aurreneko aldiz: "Burdeoson eta Parisen usoak uxatzeko silikona erabiltzen zutela enteratu nintzen eta Bergarara ekartzea bururatu zitzaidan, orain dela bederatzi bat urte. Hemen, Imanol Bolinaga alkate zela, zirinez beteta zeuden Udaletxeko harmarrietan emateko erabili genuen lehenengo aldiz. Harrezkero, kaleko hainbat fatxada eta balkoi garbi dago produktu honi esker", adierazi digu Joxe Angel Ugaldek.

Iturkinek erabiltzen duten silikonaren antzerakoa harmarri, balkoi, leiho eta abarretan ematen da, gainera esprai

"Hileta elizkizunetatik eta meza nagusietatik irtetzerakoan usoek jendearen gainera zirina egiten zuten eta askori trajea edota berokia hondatu egiten zioten"

Xabier Zubizarreta, Santa Marinako parrokoa

ORTZI
Erretegia
ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

SOLANA

- Materialen errekupeazioa
- Kontenedore zerbitzua
- Zaborrak eta hondakinak

Uzarragara bidea, z/g. • 6 P.K. • ANTZUOLA
Tfnoa: Biltegia: 78 70 08. Etxekoa: 78 70 09

kontserbante bat erasten zaiolarik. Produktu pegakorra denez usoek ez dute hurbiltzerik nahi izaten, hankak pegatzen zaizkielako. Udaletxeko harmarri eta balkoiak, orain dela urte batzuk zirinez beteta aurkitzen baziren ere, gaur egun garbi-garbiak daude. Kutzako aldameneko etxea, oster, usoz beteta egoten da eta fatxadak zirinez zikinduta daude. Laster batean usoak uxatzeko MASA CP silikona erabiltzeko asmoa agertu dute Kutzako arduradunek.

Usoei kalterik ez


Hankak erabat erreta zituzten uso ugari agertu dira herrian azkenaldian. Arazo honek ekologisten kezka piztu ditu, baina Bergarako ekologistekin harremanetan jarri gara eta hauek adierazi digute arazoa ez dutela sakonki aztertu. Joxe Angel

Ugaldek, bere aldetik, berak erabiltzen duen produktuak usoei kalterik ez diela egiten esan digu: "silikonaren gainean jartzerakoan hankak pegakor geratzen zaizkie eta ez dute berriz hurbiltzerik ere nahi izaten, baina horrek ez die hankak erretzen ezta bestelako kalterik sortarazten".

San Pedro kaleko Iburguren pentsu saltzaileak, usoak akabatzen zituen hauts batzuk saldu izan zituela adierazi digu. Baina hori erabiltzea debekatuta dago gaur egun eta urteak dira usoak uxatzeko produkturik saltzen ez duela.

Santa Marinan ezezik, Bergarako hainbat etxetan ere erabili izan da MASA CP silikona usoak uxatzeko. Balkoietan esegitako erropetan eta fatxadetan zirinaren azidoak kalte haundiak sortarazi ditu etxe askotan.

Apaingarriak dira benetan usoak, baina zenbat kalte eragiten duten...



MASA CP usoak uxatzeko Alemaniatic ekarritako silikona eta sprai.

Frai Rufino

Arrasateko Frantziskotarren konbentukoa:

"Usoak pake zabaltzaileak dira"

Rufino Oianguren, Frai Rufino, Arrasateko Frantziskotarren konbentuko prallea, usoen defendatzale amorratua dugu. Orain dela 20 urte Santanderetik uso bikote pare bat ekarri zituen: "batere intentzio txar barik, umeek usoei jolas egin zezaten". Santanderreko enparantza ezagun baten saltzen ikusi zituen eta hamar duro ordaindu zituen uso bikote bakoitza. Gaur egun 500 bat uso izango dira Arrasaten, Frai Rufinoren kalkuluen arabera.

"Izugarritzko arantza daukat bihotzean, usoek etxeetan egiten dituzten kalteengatik, jendearen haserre berri izan dudalako. Usoek ez daukate batere kulparik, euren legeak dituzte eta uste dut inori ez diotela kalterik egiten", adierazi digu.

Jakin badaki, hainbat tokitan produktu kimikoak erabiltzen dituztela usoak uxatzeko eta horrek asko mintzen du Frai Rufino. Italiako Venezia eta Asis hiriak eredutzat hartu beharko genituzke Frai Rufinoren erlitziz: "Venezian turismoa erakartzeko jarri zituzten usoak eta Udalak, aldi berean behin, uso zirinez beteta aurkitzen diren etxeetako fatxadak garbitzeko agindua ematen du, animaliei batere kalterik egin barik. Asisen, berriz, udaletxeko kanpai hotsen delari erantzunez, 2.000 bat uso inguratzen da egunero plaza nagusira; eta han jendeak, jaten ematen die".

Asiseko San Frantzisko bezala, 62 urte dituen Rufino Oianguren bolibartarra, usozalea da oso. Berak esan digun bezala, "pake zabaltzaileak direlako".

CAMACHO
DROGERIA
USAINDEGIA

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

Zubiberri

Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06



ETXE- -AUNDI

Negozio bazkariak E z k o n t z a k B a n k e t e a k

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

FS

oto istema

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

Udaberriaren etorrerak pozten al zaitu?



Arrate Garate
19 urte, ikaslea

Bai asko gainera, udaren atarian gaudela adierazten digu ta.



Bixente Beiztegi
44 urte, langilea

Bai, eguraldi hobea egiten duelako eta irteera gehiago egiten ditudalako.



J. Nikolas Gallastegi
42 urte, langilea

Urtaro batetik bestera pasatzea beti da pozgarria, eta batez ere udaberriaren etorrera.



Flora Rodriguez
40 urte, etxeoandrea

Udaberria pilo bat gustatzen zait oso alaitsua delako: loreak irtetzen dira, eguraldi hobea egiten du...

Udan HAR EZAZUE EUSKARA IKASLE BAT ETXEAN

50.000 pzta.ko dirulaguntza izango duzue.

Euskarak irabaziko du eta zeuek ere bai!!

Argibide gehiagotarako deitu edo etorri Euskara Zerbitzura. Tfnoa: 76 39 42.

BERGARAKO UDALA



EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEA



Heroina eta alkobola


Aspaldiko partez droga munduarekin zerikusia duen berri on bat kaleratu da azken egun hauetan: hau da, azkenengo hilabeteetan heroinaren kontsumoa jeitsi egin dela, zorionez, Euskal Elkarte Autonomoan.

Badirudi, urteetan eta urteetan elkarte eta sektore desberdinek egin duten lanak zerbaitetarako balio izan duela, eta plazaratutako datuen arabera esan dezakegu, itxaropena zabaltzen dela, alde horretatik behintzat, gure gizarterako. Nahiz eta jeitsiera nabarmena izan, horrek ez du esan nahi drogaren aurka egiten ari dena utzi behar denik. Inoiz baino gehiago elkarlana behar da arazoari aurre egiteko.

Baina heroinaren kontsumoaren jeitsierarekin batera beste datu batzuk ere eman dira ezagutzera, datu kezka-garriak azken hauek, eta alkoholarekin zerikusia dutenak. Euskal Elkarte Autonomoan suertatzen diren kotxe istripuen artean, alkoholak eragiten dituenak dexente dira, beste elkarte batzuetan baino askoz gehiago.

Ikusten denez, datuak, alkoholaren kasuan, ez dira hain itxaropentsuak, alderantzizkoak baizik. Heroinarekin kasuan bezala aurrera jotzeko, gidari guztiak kontzientziatu egin behar dira eta dauden neurri eta zigorrak buruan eduki kopatxo batzuekin kotxea hartu aurretik.

Ane Miren Lizarralde



Demokrazia zaintzaileak

Gure politiko hauek badute nahikoa lan joku demokratikoa, erregela demokratikoak, jarrera demokratikoak zaintzen. Demokrazia zaintzen. Hainbeste lan dute zeregin horretan, non astirik ez baitute demokrazia aplikatzen hasteko. Eta ez dute izango, bazterretan hainbeste antidemokrata ikusten den bitartean.

Esan nahi baita, jentilaje antimemokrataren erruz denbora gehiena biltzen pasatu behar dutela demokraziaren begirale zintzo hauek. Bildu egin behar demokrazia zaintzeko. Bildu gaur ituna lantzeko, bildu bihar ituna sinatzeko, bildu etzi ituna indartzeko. Mahai inguruan bildute daude. Eta gero, restaurant garestienetako mahaiak, mahai gaineoak eta ingurukoak. Hor milioikada haundiak doazkigu, baina Parisek meza bat balio bazuen, demokrazia mila bazkari eta milaka Errioxako ardo botela balioko ditu, ezta?

Bitartean, kalegarbitzaileek, eta meatzariak, eta langabetuek, eta Acenorrekoek itxaron dezatela, helduko zaie ordua. Gehienik ere zaldunen batek atea jotzen badu jaikiko dira bileratik. Oinezkoek intentzio onik ez dakarte, nahiz eta 500 kilometro oinez egin. Itxaron dezatela. Demokrazia arriskuan dagoen eta zaindu behar den landarea da. Etorriko da eguna, non demokrazia tresna izango den eta diruak demokrazia zaintzen gastatu beharrean, demokrazia aplikatzen joango den. Bitartean, gure botuei eta diruei esker, bilduta jarraituko dute. Gure pazientziak (edo inuzentziak) ez du mugarik.

Eusebio Osa

SURPE Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

OILAGORRA Taberna

Barrenkale 21, BERGARA

IRUBIDE Taberna

Bazkariak, gosariak,
afariak, etab.

Urteaga 9, Tfnoa: 76 25 67

LARRAÑAGA eta ZUBIA

Banatzaileak

**Errioxako ardoak, olioak,
esnea, leiñak**

Martokua 32, tfnoa: 764594

DEBA GARAIKO ALBAITARITZA KLINIKAK

BALDANA A.K. (Bergara)

Koldo eleizalde 28, beheka (76 27 97).

Ordutegia: Astegunetan:

•12.30-14.00 •15.00-17.00 •20.00-21.00

Larunbatetan: •11.30-13.00

ALTAMIRA A.K. (Arrasate)

Iñarra 24, beheka (79 74 89).

Ordutegia: Astegunetan:

•10.00-12.00 •17.30-19.30

Larunbatetan: •9.00-11.00

Larrialdiak: 908100930 • Abonatu zenbakia: 0247406

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



TOSHARE

ILEAPAINDEGI MISTOA ESTILISTA.

Artekale 29, Behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA

ANDUZU

**ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA**

- Azulejo erakusketa
- Onduline
- P.V.C.
- Blokeak
- Pinturak

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA

Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

Mota guztietako instalazioak

76 00 00 BERGARA

URRATS

Kafetegia

Ibargarai Tfnoa: 76 52 92
BERGARA



Presidentes guztiak

Pol-Pol Mendizale Taldeko presidentes izan diren guztiak bildu ziren joan den egunean elkartearen 50. urtemugan antolatutako ekintzen barne. Elkar-teko zuzendaritza eraman izan duten 17 mendizaleok **Javier Areitio** argazkilararen kamararen aurrean bildu ziren Pol-Poleko aretoan. Argazkian, ezkerretik eskumara; Jarrita: Jose Luis Kapanaga, Mikel Larrañaga, Julio Retegi, Juan Mari Errasti, Juan Carlos Barrena eta Fernando Arregi. Zutik: Felix Beitia, Iñaki Etxeberria, Jon Ezpeleta, Felix Iñarra, Andoni Larrañaga, Jose Mari Arizmendi, Luis Pairo, Julen Unamuno, Gregorio Plazaola, Felipe Uriarte eta Iñaki Andueza. 50 urte... eta oraindik bete beharrekoak!!

Kantuan


Bergarako Musika Eskolako **Haurren Abesbatzak** Beasaingo Parrokian abestuko du larunbatean, hilak 4, arratsaldeko 8etan. Bertako **Loinaz Txikiri** egingo dioten



bisita honetan, abesbatza bakoitzak 6 abesti eta beste bi elkarrekin kantatuko dituzte. Hauek bai aingeru ahotsak!!

□ **Kartela**

Bergaran apirilaren 26an ospatu beharreko Gipuzkoako **Haurren IV. Korai Egunak** badu jadanik bere kartela. Epai-mahaiak, aurkeztutako lan guztien artean, **Yolanda Carrero** eta **Arantzazu Prieto**, Mariaren Lagundia ikastetxeko 7. mailako ikasleek eginikoa aukeratu zuen. Ospakizun musikal hori ezagutarazteko balio izateaz gain, kartel honek bi mendiko bizikleta saria irabaztea suposatu die bi neskato hauei.




□ **Donostiara bisita**

Institututuko 1. go mailako ikasleek egun osoa pasa zuten orain gutxi Donostian. Hondartzara joaterik izan ez zutenek, **ETBko** Miramongo estudioak eta **EL DIARIO VASCO** egunkariko instalazioak bisitatu zituzten, egun ederra igaroz. Kazetaritzarako bokaziorik sortu omen zitzaizenez, lerro hauetatik **BERRIGARA**rekin kolaboratzeko proposamena luzatzen diegu...


Zertan dihardute ba?

MIREN AZKARATE



Aita bergarra zuen 43 urteko donostiar filologo honek aukera haundiak ditu Aita Barandiaranek Euskaltzaindian utzitako lekua betetzeko. EUTGn eta EHUn klaseak ematen ditu eta bere lanak hitz konposatuei buruzkoak dira.

AITOR ELKORO



Gipuzkoako txapela lortu ondoren, 24 urteko elgetar hau Euskal Ligako Pelota Txapelketan lidergoan dugu senior banakako kategorian. Aitorrek Oñatiko Aloña-Mendi taldean jokatzen du.



Gaspar
Jatetxea, Txokolategia,
Self Service-a

Barrenkale 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

**JUBILATUEN
TABERNA**

• **Bazkari eta afariak**

Tfnoa: 76 62 71 ANTZUOLA

Umore giroan

Lenguak be gastatzeko

Beñ batian Plaentxiako errekadistak gure eibartarrari:

- Kaien, Plaentxiako Urlixak gorantziak emon destaz zuretzako.

- Ondo daok, emon gorantziak berari be.

Andik apur batera, itxura danez aztuta errekadistia len be kunplidu zebala enkargua, esaten detsa barriri Kaietanori:

- Kaien, gorantzi asko emon destaz Urlixak zuretzako.

Ta Kaietanok erantzun:

- Esaixok lenguak be gastatzeko dakadazela!!

* * *

Emon al banitxuke

Ondo zagoz Kaien! -esan zetzan lagun batek-. Go-

gor ikusten zaitxut.

- Gogor bai azurretatik!

- Zenbat urte daukazuz?

- Irurogeitamar.

- Eztozuz emoten.

- Ai emon al banitxuke, asko gitxiagokin geratuko nintzakek!!

* * *

Aren berbiak indarririk ez

"Punteret" oso famatua zan Eibarren. Egun baten, itxura danez, mingaiñak igez egin zetsan eta geigitxo esan zeban lagun bategaitxik. Etorri jako au eta diñotsa:

- I, zer jardun dok esaten neregatxik?

- Tira, Bixente, esate-tsa Urlixak, ez adi ola jarri. Ik estakik ala nere berbiak eztaukala indarririk?

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak

Muga Arazoak

Bergarak jurisdizio istilu ugari izan du historian zehar: anexioak eta desanexioak, muga arazoak e.a. inguruko herri guztiekin. Jabetasun sinbolo bat alkatearen presentzia zen bere alkate-makilarekin.

Jabetasun arazo bategatik errezeluak eta tirabirak zeudenean ezin izaten zen horrelako presentzia sinbolikorik onartu. Hori gertatu zen 1.581ean Bergara eta Elgeta San Kristobalگو ermitaren jabetasuna zela eta aspalditik haserre zebiltzanean. Korrejidoreak debekatu egin zion Elgetako alkateari bere alkate-makilarekin santuaren egunean hara agertzea, baina urte hartan bi herrietako alkateak lagunak izan, eta Bergarakoak utzi egin zion makilarekin etortzen. Bergararrak sutan jarri ziren, ez zioten laga ermitan



sartzen eta preso hartu zuten.

Eskandalu demasa sortu zen. Alkatea detenitu zuten bergarak guztiak gartzelan sartu nahi zituen Elgetak, baina haiek beren eskubidea defendatu zutela zioten, bere jabepekoak ez ziren lurretan alkate-makilarekin sartzea debekatu izana ez zela geihegikeria argudiatuz. Alde bietatik "gizon onak" izendatuz ebittatu zen zetorren auzia. Ermitak Bergararen jurisdiziopean jarraitu zuen.

Juantxo Madariaga

BERGARA
Karrozeria

Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31

MUGICA

Burdinaki denda

Bdekurutzeta 8

Tfnoa: 76 28 67

BERGARA

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA


INFERNUKUA
TABERNA

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

✓ **Alberto Roldan** txirrindulariak irabazi zuen, sprintean, igandean Antzuolan jokaturako Uzarragako XVII. Txirrindulari Igoera. Bigarren Guridi izan genuen eta 2 segundutara Josu Larrañaga heldu zen.

✓ **J. Luis Etxaniz** bergarar gaztea izan zen garaile LAMek ostiralean Tartufon antolatutako futbol txapelketan. Guztira, 23 bikotek hartu zuten parte.

✓ **Euskadiko Itzuliaren 4. etapa** Bergararik pasako da ostegunean (Elusutik behera, Bergaran 13.45etan). Ostiralean ere, goizeko tramoan, Antzuolarako bidean Bergarako bariantean 9.45ak aldera izango dugu txirrindulariak ikusteko aukera.



Pala txapelketa

Igandean hasi zen Osintxuko pelotalekuan Udal Kirol Zerbitzuak antolaturiko II. Pala Txapelketa. Guztira bi taldeetan banaturiko 14 bikotek hartzen dute parte aurren, txapelketa liga eran jokaturako delarik hemendik ekainera bitartean.

Talde bakoitzeko partidu guztiak jokatuz gero, A eta B taldeetako lehen bi bikoteak gurtzatuko dira ekainaren 14ko finalistak erabaki-

tzeko.

Txapeldunak nortzuk izango diren erabakitze-ko ordua heldu bitartean igande goizero partiduak izango dira Osintxun goizeko 9etatik aurrera.

A eta B multzotako ihardunaldiak ondoko fetxatan jokaturako dira: apirilaren 5ean bigarrena, 12an, 26an, maitzaren 10ean 5.a, 17an, eta 24ean. Sailkatutako lau bikoteek maitzaren 31n jokaturako dituzte final aurreak.

✓ **Pala txapelketaren** bigarren ihardunaldia jokaturako da igandean: A multzoan, Gomez-Crespo/Txopitea-Guezala (11.30), Alberdi-Gallastegi-Martinez-Zangitu (12.20) eta Garmendia-Peñalba/Garitano-Garin (13.30). B multzoan, Gabilondo-Berraondo/Etxaniz-Iñarra (9.00), Etxeberria-Manzanedo/Etor eta J.M. Laskurain (9.50) eta Etxaniz-Balzategi/Albeniz-Gallastegi (10.40).

✓ **Bergara Futbol Taldeak** Usurbilen aurka jokaturako du igandean arratsaldeko 5etan. Bergararrak hirugarrenak ditugu sailkapenean Roca eta Lazkaoren atzetik igandean lortutako garai-penaren ondorioz.



Kirolaz jarduten


Jende dexente bildu izan dute asteazken eta ostegunean Kirol Zerbitzuak eta JARDUNek antolaturiko *Fondoko Kirolari buruzko jardunaldiek*. Asteazkenean, Euskadiko krossaren nahiko ikuspegi ezkorra eman zuten Rafa Olarra kazetaria, Gaspar Esnaola korrikalari-ohia eta Jose Gurrutxaga korrikalari beteranoak, J.M. Elexpuru moderatzaile lanetan aritu zelarik. Ostegunean Sabino Padilla kirol medikuak entrenamendu planifikazioaz jardun zuen, bi hitzaldion ondorengo eztabaida oso interesgarria suertatuz.

GANBARA

Berezitasunak:
Pintxoak eta
kafea kremarekin

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

**T
B
E
R
N
A**



JAUJA KIROLAK

Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

Taberna kafetegia

EHIZTARIAK
LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta 26, BERGARA



Bigarren Jaunartzea Osintxun

Dударик ez dago ezkontza, jaunartze eta antzeko ospakizunak izan direla eta direla gaur egun ere argazkiak ateratzeko unerik egokienetakoak. Berrigarren ere atera izan dugu halako argazkirik eta gaurkoan ere horietako bat dakarzugue.

Osintxun egindako Bigarren Jaunartze batean egindakoa da, 1.950 aldera ateratakoa. Bertan agertzen direnak honako hauek dituzue, ezkerretik eskumara:

Gorengo ileran: Iñaki Albeniz, Don Benigno Larrañaga, Jon Albeniz eta Julian Ezenarro.

Erdiko ileran: Julian Urrutia, Jabier Etxeberria, Gregorio Mujika, Jesus Alberdi, Patxi Bengoa eta Bernardo Alberdi.

Hirugarren ileran: Karmen Lete, Irene Labaka, Ana Mari Garaikoetxea, Irene Garaikoetxea, Mari Mertxe Gantxegi eta Milagros Osoro.

Aingeruak: ezkerrean, Ana Mari Laskurain; eskuman, Igone Belastegi.

Estepan Plazaola.

Argazkia: Milagros Osoro.

**Euskalduna
Taberna**

OSINTXU

ELEKTRO

ARENAZA C.B.

**Montaje elektrikoak,
automatismoak, e.a.**

San Lorenzo 19,
Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43

LETE

TOLDOAK

Kataide Pol/Ind. 14. Pab.
☎ 79 23 83 ARRASATE
☎ 76 12 24 BERGARA
☎ (94) 681 76 19 IURRETA

ETXEBIZITZA

Harane Errekan garajea salgai. ☎ 76 39 11.

Etxebizitza salgai Artzamendin. ☎ 76 10 10 (gaueko 8etatik aurrera).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 61 (arratsalde).

Pisua salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 04 15 (iluntzeko 8etatik 10etara bitartean).

Bi apartamentu alokatzten ditut: bata, Gandiako hondartzan eta bestea Bellreguart-eko (Gandia) hondartzan. ☎ 96-286 66 12 / 96-286 85 41.

Pisua salgai Ozaetan. Ganbara, garaje eta guzti. ☎ 76 51 52.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauzez.

Garajea salgai Espalorian. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 03 31.

Pisua salgai Urteaga kalean. Sukaldea, 3 gela, saloia eta bainu gela. Amueblatuta. ☎ 76 14 87.

Garajea salgai. ☎ 76 39 11.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 23.

Pisua alokatzten dut herriaren erdian. ☎ 76 44 35.

SALDU-EROSI

Yamaha SR-250-E, salgai, SS-AH matrikula. ☎ 76 52 30.

Adria 440 karabana salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 43 98.

6-8 urtekoentzako Fondoko eski pare bat salgai. 5.000 pzta. ☎ 76 32 69.

Amnstrad konsola salgai, hiru jokurekin. ☎ 76 53 67.

Dantzaldietan, bodetan e.a.etan ibiltzen den taldeak teklista bat behar du. ☎ 73 01 17.

Trabesiako eskiak salgai: 1.85 metrokoak. Berri-berriak. ☎ 76 22 50.

Mendiko Kamet bota pare bat (44a) salgai. Oso merke. ☎ 76 24 64.

Mendiko bizikleta (hiru koloretako MBK) galdu zait Mahasterrekako etxe berrietako garajeen. Topatzen duenak dei nazala mesedez. ☎ 76 25 45.

Ski alpinoko bota pare bat (43a) salgai. Berri-berriak, 2 hilabete. ☎ 76 38 72. Alex.

PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko objetibodun argazki makina salgai. METZ 20B3 flasha, funda, poltsa eta guzti. Manuala eta automatikoa. Berri-berria. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

Musika jotzeko bateria salgai. ☎ 76 53 55.

PENTAX objetiboa, 28-80, F: 3,5 salgai. 15.000 pzta. ☎ 76 28 55.

VIVITAR objetiboa, 70-210, F: 4-5,6 salgai. 10.000 pzta. ☎ 76 28 55.

Txamarra urdin eta berde koloretakoa galdu zait. Topatzen duenak dei beza lehenbailehen, mesedez, telefono honetara: ☎ 76 31 01.

GOLF GTI kotxea, SS. AB matrikula, salgai. Oso egoera onean (1.300.000 pzta). ☎ 76 04 22 (gauez).

LANA

Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. ☎ 76 45 53.

Neska batek edozein motatako lanak egingo lituzke. ☎ 76 21 70.

Baserriko gizon gaztea behar dut nekazaritzako produktuak saltzeko. ☎ 76 12 21.

Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

Mutil batek edozein motatako lanak egingo lituzke. ☎ 76 03 31.

Hildakoak

Juan Carlos Seco Moreno
martxoaren 26an, 26 urte.

Jaiotakoak

Unai Sánchez Luque
martxoaren 19an
Mikel Díaz Pascual
martxoaren 29an

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

Aldoka
Maldoka

TABERNA


Kruz Gallastegi, BERGARA

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Harane Erreka 4
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO
GARANTIA



**TEMPRA
STADIO**

1.535.000 pzta
Matrikulatuta

ERAKUSKETA:
Ibargarai 39
BERGARA

TAILERRAK:
Antigua Auzoa
ANTZUOLA

Autoberezi FIAT

ZERBITZU OFIZIALA